LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKATE DEKRETUA 2018/060

Udal intereseko kultur, kirol, aisia, gizarte eta antzeko jarduerak egiteko Udal diru laguntzak
2018ko ekitaldian burutzeko behin-behineko kopuruen banaketa

Legorretako eragile, Elkarte edo/eta erakundeek Kultur, Kirol, Aisia, Gizarte eta antzeko jarduerak gauzatzearekin neurri batean Udalaren intereseko eta zeregin diren esparruetan dakarten onura kontutan izanik eta herriarentzako duten interes orokorra kontutan izanik, Legorretako Udalak laguntza politika bat ezarri du bertako eragileek burutzen dituzten ekintzak diruz laguntzeko.

Hori horrela izanik, gastu horiei aurre egiteko Legorretako Udalak 1.00.00.481.334.00.03.2018 aurrekontu partida du.

Honetaz gain, Udalak herriko eragileekin bat etorriz diru hori banatzeko prozedura bat landu du.

Herriko eragileek 2018. urterako aurkeztu dituzten egitarau eta aurrekontuak erabakitako prozeduraren arabera aztertu eta neurtuta, dagokion Udal sailak dagokion proposamena egin du.

Proposamen hau 10 egunetako epe batez entzute tramitera jarri zaie eragileei, bakoitzak zerizkion zuzenketa, ohar, puntualizazio, ñabardura eta abar eginak izan zakizkion.

Azkenik dagokion Udal sailak lanketa guzti honetatik eratorritako proposamena luzatu du berau onartua izan dadin.

Horrela izanik, ditudan eskurantzak erabiliz, hau da hartu dudan

ERABAKIA:

***LEHENIK*:** Legorretako Udalaren 1.00.00.481.334.00.03.2018 aurrekontu partidan 30.000,00 € kopurua 2018 ekitaldian aipatzen ari garen esparru honetarako erreserbatuak izatea eta 2017 ekitaldian soberakin bezala geratutako 3.595,66 € gehitzea. Guztira 33.595,66 €.

BIGARRENA: Erabilitako prozedurari jarraituz dagokion Udal sailak proposaturiko 2018rako diru laguntzak onartzea, urtea amaitu ondoren egingo den likidazioan erabakitakoaren kalterik gabe.

ARETO FUTBOL TALDEA	2.851,75 €
ALDAIETA Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea	5.926,70 €
eLegunea	300,00 €

KALE NAGUSIA, 12 – TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-mail: udala@legorreta.eus - 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA)

LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ELEKUN Abesbatza	1.717,00 €
IRRINTZI-ALAI LUGORRI Dantza Taldea	9.234,78 €
LEGOREGGAE	4.277,63 €
ODOL EMAILEAK	1.406,20 €
PIKUK	4.445,00 €
UGAROTARRAK Guraso Elkareta	3.127,71 €

HIRUGARRENA: Entitate onuradun bakoitzarekin bi aldeen betebeharrak jasotzen dituen egin beharreko lankidetza hitzarmenak onartzea, Legorretako Udalak subentzionatzen dituen kultur, kirol, aisialdi, gizarte eta antzeko jarduerak gauzatzeko, hitzarmen horiek dekretu honetako 1. Eranskinean jasotzen direlarik.

LAUGARRENA: Hitzarmenean adierazitakoarekin bat etorriz, aurrerapen gisa, elkarte bakoitzaren 2018rako diru laguntzaren % 60a ordaintzera jotzea, likidazio ondoren aterako diren zenbatekoak edozein direla ere. Kopuru hauek ondoren zehaztuak datozenak izanik:

ARETO FUTBOL TALDEA	1.711,05 €
ALDAIETA Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea	3.557,82 €
eLegunea	180,00 €
ELEKUN Abesbatza	1.030,20 €
IRRINTZI-ALAI LUGORRI Dantza Taldea	5.540,87 €
LEGOREGGAE	2.566,58 €
ODOL EMAILEAK	843,72 €
PIKUK	2.667,00 €
UGAROTARRAK Guraso Elkartea	1.876,63 €

Alkatea

KALE NAGUSIA, 12 – TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-mail: udala@legorreta.eus - 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA)